

Jarduera honetan, berokuntzan edo kalefakzioan dirua aurrezteko trikimailuak ikusiko ditugu, eta bukaeran geuk ere gomendioak emango ditugu beste kontu batzuetan diru gutxiago gastatzeko.



1-Berokuntzan dirua aurrezteko trikimailuak

Berokuntzan edo kalefakzioan diru gutxiago gastatzeko moduak aztertuko ditugu jarduera honetan. Testua irakurri aurretik, erantzun puntu hauei:

- Zer temperatura da egokia etxean egoteko?

- 24°
- 20°
- 22°

- Gaueko tenperaturak zenbatekoa izan behar du?

- Egunekoa bezalakoa izan behar du.
- Ez du 15°-tik jaitsi behar.
- Berdin dio zenbatekoa den, ohean bero egoten gara eta.



Orain, irakurri testua gainera eta markatu erantzun zuzenak. Asmatu al duzu?

10 trikimailu berokuntzan aurrezteko

1. Aldian behin, aztertu galdara eta gas-instalazioa, eta purgatu erradiadoreak beharrezkoa bada.
2. Saihestu bero-galerak, kristal bikoitzeko leihoekin, burleteekin, pertsianekin, alfonbrekin, gortinekin, etab.
3. Erabili termostato programagarriak, berokuntza zure ordutegietara egokitzeko. Energia % 8tik % 13ra bitarte aurreztuko duzu.
4. Etxean nahikoa da 20^o-ko tenperatura edukitzea; hortik gorako gradu bakoitzeko, faktura % 7 igotzen da.
5. Gauean, itxi leiho, pertsiana eta gortinak, beroa mantentzeko. Ez utzi tenperatura 15 gradutik behera jaisten.
6. Aireztatu, baina neurritz. 5-10 minutu nahikoak dira airea berritzeko.
7. Utzi erradiadoreak libre. Airearen zirkulazioa oztopatzen baduzu energia gehiago kontsumituko duzu.
8. Jarri balbula termostatikoak erradiadore bakoitzean, gela bakoitzeko beroa kontrolatzeko.
9. Etxean, jantzi berogarriak. Berokuntzaren helburua ez baita guk beroa izatea, hotzik ez izatea baizik.
10. Aprobetxatu egun eguzkitsuak eta utzi beroa leihoetatik sartzen.

Kontsumobide aldizkaria, 34. zk.

2- Esaldi-zatiak lotzen

Segidan dituzu testuko esaldi batzuk, baina zatituta daude. Lotuko al dituzu?

1- hortik gora, gradu bakoitzeko % 7 igotzen da faktura.

2- beroa mantentzeko.

3- eta purgatu erradiadoreak.

4- eta utzi beroa leihoetatik sartzen.

5- bestela, energia gehiago kontsumituko duzu.

6- 5-10 minutu nahikoa da airea berritzeko.



1. ZATIA	2. ZATIA
Noizean behin aztertu galdara	
Etxean nahikoa da 20º-ko tenperatura edukitzea;	
Gauean itxi leiho, pertsiana eta gortinak	
Aireztatu egunero etxea	
Aprobetxatu egun eguzkitsuak	
Utzi erradiadoreak libre,	

3- Hitz-konbinazioak egiten

Hemen dituzu berokuntzarekin lotutako hitz-konbinazioak. Binaka jarrita, lotu 2 zutabeetako hitzak elkarrekin, konbinagarriak direnak. Zalantzarik baduzu, begiratu transkripzioan daukazu testuari.

Aditzak	Izenak
saihestu	termostato programagarriak
purgatu	leihoak
aireztatu	etxea
gauean itxi	erradiadoreak
ez utzi	egun eguzkitsuak
aprobetxatu	tenperatura jaisten
erabili	beroa galtzea

Esate baterako:

- *Ez utzi tenperaturari jaisten*



4- Dirua aurrezteko gomendioak ematen

Hizkuntza-formetan jarriko dugu arreta orain. Testua aurrean duzula, erantzun bi galdera horiei:

10 trikimailu berokuntzan aurrezteko

1. Aldian behin, aztertu galdara eta gas-instalazioa, eta purgatu erradiadoreak beharrezkoa bada
2. Saihestu bero-galerak, kristal bikoitzeko leihoekin, burleteekin, pertsianekin, alfonbrekin, gortinekin, etab.
3. Erabili termostato programagarriak, berokuntza zure ordutegietara egokitzeko. Energian % 8tik %13ra bitarte aurreztuko duzu.
4. Etxean nahikoa da 20^o-ko tenperatura edukitzea. Hortik gorako gradu bakoitzeko, faktura % 7 igotzen da
5. Gauean, itxi leiho, pertsiana eta gortinak, beroa mantentzeko. Ez utzi tenperatura 15 gradutik behera jaisten.
6. Aireztatu, baina neurritz. 5-10 minutu nahikoak dira airea berritzeko.
7. Utzi erradiadoreak libre. Airearen zirkulazioa oztopatzen baduzu energia gehiago kontsumituko duzu.
8. Jarri balbula termostatikoak erradiadore bakoitzean, gela bakoitzeko beroa kontrolatzeko.
9. Etxean, jantzi berogarriak. Berokuntzaren helburua ez baita guk beroa izatea, hotzik ez izatea baizik.
10. Aprobetxatu egun eguzkitsuak eta utzi beroa leihoetatik sartzen

Kontsumobide aldizkaria, 34. zk.

1. Zer aditz-denbora erabiltzen du testuak trikimailu edo gomendioak emateko?

- Ahalera
- Agintera
- Geroaldia

2. Zerbait lortzeko ematen ditugu gomendioak. Zer trikimailutan, zer esalditan, ageri dira helburuzko esaldiak?

- 3-5-6-8
- 1-3-6-9
- 1-5-9-10



Jarri talde txikitan eta idatzi hiruzpalau trikimailu dirua aurrezteko.

Hemen dituzu 2 helburu (nahi izanez gero, pentsatu beste helbururen bat):

- Etxean argindarra aurrezteko
- Erosketetan diru gutxiago gastatzeko

Gomendioak emateko, erabil ditzakezu hemen ikusi ditugun hizkuntza-formak (aditza aginteran) edo beste batzuk: komeni da, ez da egokia... -t(z)ea.

- Erosketetan diru gutxiago gastatzeko, erosi (ezazu) arropa merkealdian.
- Ez da komeni argia piztea egunez, eguzkiaren argia nahikoa da eta.

Bukatzeko, komentatu talde osoaren aurrean eta ikusi zertan zatozten bat



5- Zertarako aurreratu dirua?

Irratsaio honetan, hiru gaztek dirua aurrezteko zer teknika erabiltzen duten kontatuko digute. Baina zertarako aurrezten dute dirua? Entzun audioa eta erantzun galderari.

Nork aurreztu du dirua derrigorrezko gauzetan gastatzeko: pisuko gastuak...?

- Haizeak.
- Ekaitzek.
- Idoiak.

Nork aurreztu du bidaiatzeko?

- Hirurek.
- Haizeak bakarrik.
- Inork ez.

Nork aurrezten du arropa erosteko?

- Haizeak.
- Ekaitzek.
- Idoiak.



6- Dirua aurrezteko teknikak

Entzun berriro irratsaioa, eta markatu taulan nork esan dituen ondorengo esaldi hauek.

	Ekaitz	Haizea	Idoia
Beharrezkoak ez diren gauzak alde batera uztea.			
Helburuak jartzea.			
Arropa merkea erosi eta etxean osatzea.			
Botiloi egitea, kalean edatea.			
Gurasoen etxetik janaria hartzea.			
Kosmetikoak etxean egitea.			

1-Berokuntzan dirua aurrezteko trikimailuak

Zer temperatura da egokia etxean egoteko?

- 20°

Gaueko tenperaturak zenbatekoa izan behar du?

- Ez du 15°-tik jaitsi behar.

2- Esaldi-zatiak lotzen

1. ZATIA

Noizean behin aztertu galdara

Etxean nahikoa da 20°-ko temperatura edukitzea;

Gauean itxi leiho, pertsiana eta gortinak

Aireztatu egunero etxea

Aprobetxatu egun eguzkitsuak

Utzi erradiadoreak libre,

2. ZATIA

(eta purgatu erradiadoreak)

(hortik gora, gradu bakoitzeko % 7 igotzen da faktura)

(beroa mantentzeko)

(5-10 minutu nahikoa da airea berritzeko)

(eta utzi beroa leihoetatik sartzen)

(bestela, energia gehiago kontsumituko duzu)

4- Dirua aurrezteko gomendioak ematen

1. Zer aditz-denbora erabiltzen du testuak trikimailu edo gomendioak emateko?

- Agintera

2. Zerbait lortzeko ematen ditugu gomendioak. Zer trikimailutan, zer esalditan, ageri dira helburuzko esaldiak?

- 3-5-6-8

5- Zertarako aurreratu dirua?

Nork aurreztu du dirua derrigorrezko gauzetan gastatzeko: pisuko gastuak...?

Ekaitzek.

Nork aurreztu du bidaiatzeko?

Hirurek.

Nork aurrezten du arropa erosteko?

Idoiak.

6- Dirua aurrezteko teknikak

	Ekaitz	Haizea	Idoia
Beharrezkoak ez diren gauzak alde batera uztea.	X		
Helburuak jartzea.		X	
Arropa merkea erosi eta etxean osatzea.			X
Botilo egitea, kalean edatea.		X	
Gurasoen etxetik janaria hartzea.		X	
Kosmetikoak etxean egitea.			X